



Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren 2026 Plan Operatiboa

#Vgazte plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Aurkibidea

1.	SARRERA.....	2
2.	EUSKO JAURLARITZAREN PLANAK ETA ESTRATEGIAK, V. GAZTE PLANEAN ERAGINA DUTENAK.....	4
2.1.	V. Gazte Plana eta Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta estrategia batzuk	5
2.2.	V. Gazte Plana eta Garapen Iraunkorreko Helburuak	7
3.	GAZTEAK EUSKADIN.....	14
3.1.	Testuinguru demografikoa.....	15
3.2.	Hezkuntza	20
3.3.	Enplegua eta egoera ekonomikoa	25
3.4.	Emantzipazioa eta etxebizitza	36
3.5.	Osasuna.....	40
3.6.	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	54
3.7.	Balioak eta jarrerak.....	57
3.8.	Aisia	63
4.	V. GAZTE PLANAREN (2022-2026) EGITURA.....	69
5.	2026eko PLAN OPERATIBOA.....	73
6.	ERANSKINA: 2026ko JARDUEREN ZERRENDIA, ARDATZ, ARLO, HELBURU ETA ESKU-HARTZE ILDOEN ARABERA.....	76



1.

SARRERA

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren **2022-2026 V. Gazte Planak** 4 ardatz, 15 arlo, 33 helburu estrategiko eta 73 esku-hartze ildo ditu.

2026ko Plan Operatiboa egiteko, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza bakoitzak gogoeta egin behar izan du gauzatu beharreko jarduera guztiak definitzerakoan, bai eta horretarako erabiliko den aurrekontua, ebaluazio-adierazleak eta ekitaldian jarduera bakoitzerako lortu beharreko helburu-balioa edo xedea ere, 2026ko ekitaldia igaro ondoren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Datuak biltzeko, berariaz horretarako diseinatutako tresna informatikoa erabili da, Gazte Planaren jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Aplikazio informatikoa web-ingurunean garatuta dago, Planean parte hartzen duten erakundeek beren gazte-politikei buruzko informazioa eman, datuak kudeatu eta haien jarraipen hobea egin dezaten.

Txosten honek, sarrerako lehen kapitulu horretaz gain, bigarren kapitulu bat ere badu non V. Gazte Planean eragina duten Eusko Jaurlaritzaren barruan sustatutako plan estrategikoak eta ekimenak jasotzen diren. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) duen lotura islatzen da.

Hirugarren kapituluak 2026ko programazioaren testuingurua definitzen du, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren mende dagoen Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokian jasotako informaziotik ateratako adierazleen hautaketa baten bidez.

Azkenik, 2026ko Plan Operatiboa bera jasotzen da, Ardatz, Helburu Estrategiko eta Esku-hartze Ildo bakoitzeko jarduketak zehaztuta, V. Gazte Planaren egituraren arabera. Txosten honen amaieran sartutako fitxa indibidualizatueta, 2026ko aurrekontu-ekitaldirako programatutako aurrekontua, jardueraren jarraipena egiteko erabiliko den magnitude-adierazlea eta ezarritako helburu-balioa ere aurkezten dira.



2.

**EUSKO JAURLARITZAREN PLANAK
ETA ESTRATEGIAK, V. GAZTE
PLANEAN ERAGINA DUTENAK**

2. V. Gazte Planean eragina duten Eusko Jaurlaritzaren planak eta estrategiak

2.1. V. Gazte Plana eta Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta estrategia batzuk

V. Gazte Plana bat dator Eusko Jaurlaritzak onartutako indarreko plan eta ekimen hauekin:

- **Ekonomia eta enplegua:**
 - Enpleguaren Euskal Estrategia 2030
 - 2025-2028 Enplegu Plan Estrategikoa
 - Gizarte Ekonomiako Sailarteko II. Plan Estrategikoa 2026-2029 (onartzeko dago).
 - Lanbideren Plan Estrategikoa 2022-2026
 - Euskadiko Ekintzailtzaren Erakunde arteko Plana 2028.
 - Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia 2021-2026
- **Gazteria eta erronka demografikoa:**
 - 2030erako euskal estrategia gazteriaren arloan
 - 2030erako euskal estrategia, gazteen emantzipazioa bultzatzeko
 - 2030erako euskal estrategia erronka demografikorako
- **Berdintasuna:**
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia
 - 2030erako estrategia, Euskadin soldata-arrakala murrizteko
 - Euskadin soldata-arrakala murrizteko Ekintza Plan Operatiboa 2022-2025
- **Hezkuntza:**
 - Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa 2025-2028
 - EAEko Hezkuntza Orientatzeko Estrategia 2023-2026
 - DBH, Batxilergoa eta LH Orientazio Plana 2023-2026
 - Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026
 - Adimen Digitala. Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana 2025-2029.
 - Lanbide Heziketako Euskal Estrategia 2030
 - Aisialdiko hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategia
 - (H) ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021-2025 aldirako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Ekintza Plana
- Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana 2019-2022 (erreferentziako dokumentua)
- Euskal hezkuntza-sistamarako hezkidetzako II. Plana 2019-2023 (indarrean)
- Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integrala 2024-2028
- Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia - 2025eko Kanpo Ekintzako Plana
- **Gizarte-politikak eta integrazioa:**
 - EAEko familiei, haurrei eta nerabeei laguntzeko Erakunde arteko V. Plana
 - EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026
 - Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana
 - eLankidetzaren 2025-2026 Bi Urteko Plana
 - Gizarteratzeko V. Euskal Plana 2022-2026
 - Gazte Justiziaren VI. Plana 2025-2029
 - Haur eta Nerabeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia 2022-2025
 - Herritartasunari, Immigrazioari eta Asiloari buruzko Kulturarteko VI. Plana 2022-2025
 - Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2025-2028
 - Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia Euskadin
 - Euskadiko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiaren Ekintza Plana
- **Ingurumena eta kontsumo iraunkorra:**
 - Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030erako Gida Plana
 - Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Iraunkorreko Plan Estrategikoa 2021-2025
 - Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agenda
 - Industria Plana - Euskadi 2030
 - Euskadiko Energia Estrategia 2030
 - Kontsumobideren 2022-2024ko Plan Estrategikoa
- **Osasuna, jarduera fisikoa eta kirola:**
 - Osasun Plan Estrategikoa 2030
 - Mugiment 2025-2030 ekintza-plana
 - Euskadiko osasun mentaleko estrategia 2023-2028
 - Adikzioen VIII. Plana 2022-2026

- **Etxebizitza:**
 - Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea 2025-2027
 - Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036
- **Euskara eta kultura:**
 - Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2025-2028
 - Eremu Sozioekonomikoan Euskara Normalizatzeko Plana 2024-2027
 - Kulturaren Plan Estrategikoa 2028
 - Irakurketa sustatzeko ekintza-plana, euskal gazteei zuzendua
- **Segurtasuna**
 - Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra 2020-2025
- **Zientzia eta teknologia:**
 - Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2026-2030
 - Euskal I+G+b estrategia Europan 2021-2030
 - Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2030
- **Zeharkako programak:**
 - Euskadiko 2030 Agenda
 - XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programa 2024-2028
 - Euskal Estatistika Plana 2023-2026

2.2. V. Gazte Plana eta Garapen Iraunkorreko Helburuak

Jarraian, harreman zuzena duten GJHak, Nazio Batuen arabera emandako definizioa eta lotura zuzenena duten xedeak jasotzen dira:



Pobreziaren adierazpenen artean, gosea, malnutrizioa, etxebizitza duin baten gabezia eta hezkuntza edo osasuna bezalako oinarritzko beste zerbitzu batzuetarako sarbide mugatua daude. Diskriminazioa eta gizarte-bazterketa ere hor daude. Pobreziarekin amaitzeko helburu hori lortzeko, hazkunde ekonomikoak inklusiboa izan behar du, enplegu iraunkorrak sortzeko eta berdintasuna sustatzeko.

Lotura duten xedeak

- 1.2 2030erako, neurri guztietan pobrezian bizi diren adin guztietako gizon, emakume eta haurren proportzioa gutxienez erdira jaistea, definizio nazionalen arabera.
- 1.3 Nazio-mailan gizarte-babeseko sistema eta neurri egokiak praktikan jartzea guztientzat, gutxieneko mailak barne, eta, 2030erako, pertsona pobre eta kalteberen estaldura zabala lortzea.

- 1.5 2030erako, pobreen eta egoera ahulean daudenen erresilientzia sustatzea, eta klimarekin eta beste krisi eta hondamendi ekonomiko, sozial eta ingurumenarekin lotutako muturreko fenomenoekiko esposizioa eta kalteberatasuna murriztea.
- 1.b Estatuan, eskualdean eta nazioartean arau-esparru sendoak sortzea, genero-gaiak kontuan hartzen dituzten pertsona pobreen aldeko garapen-estrategiak oinarri hartuta, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsio bizkorra egiteko.



Elikagaien sektoreak eta nekazaritza-sektoreak garapenerako funtsezko irtenbideak eskaintzen dituzte, eta ezinbestekoak dira gosea eta pobrezia ezabatzeko. Modu egokian eginez gero, nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak elikagai elikagarriak eman diezazkiokete planeta osoari, eta diru-sarrera txukunak sor ditzakete, landako jendearen garapena lagun dezakete eta ingurumena babes dezakete.

Lotura duten xedeak

- 2.1 2030erako, goseari amaiera ematea eta pertsona guztiek, bereziki ahulenek, elikadura osasuntsu, elikagarri eta nahikoa izatea urte osoan zehar.
- 2.2 2030erako, malnutrizio-modu guztiei amaiera ematea, eta, gehienez ere 2025erako, 5 urtetik beherako haurren hazkundearen eta emaziazioaren atzerapenari buruz nazioartean hitzartutako jomugak lortzea, eta nerabeen, haurdun dauden emakumeen, bularreko haurren eta adineko pertsonen elikadura-premiei heltzea.



Azken hamarkadetan, aurrerapen handiak lortu dira bizi-itzaropena handitzeari eta haurren eta amaren heriotza-tasarekin lotutako heriotza-kausa ohikoenetako batzuk murrizteari dagokienez. Halaber, hobekuntzak lortu dira ur garbirako sarbidean eta saneamenduan, malariaren murrizketan, tuberkulosian, poliomielitisean eta GIB/HIESaren hedapenean. Hala ere, askoz ekimen gehiago behar dira gaixotasun sorta zabal bat erabat desagerrarazteko eta osasunari buruzko gai iraunkor eta berri ugariri aurre egiteko.

Lotura duten xedeak

- 3.3 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren, malariaren eta artatu gabeko gaixotasun tropikalen epidemiei amaiera ematea eta hepatitisari, urak transmititutako gaixotasunei eta beste gaixotasun transmitigarri batzuei aurre egitea.
- 3.4 2030erako, transmititu ezin diren gaixotasunengatiko hilkortasun goiztiarra heren bat murriztea prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- 3.5 Adikzio-substantzien abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desagokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.

- 3.7 2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzea, familia, informazioa eta hezkuntza planifikatzekoak barne, eta ugalketa-osasuna estrategia eta programa nazionaletan integratzea.



Kalitatezko hezkuntza lortzea pertsonen bizitza eta garapen iraunkorra hobetzeko oinarria da. Aurrerapen handiak egin dira maila guztietan hezkuntzarako sarbidea hobetzeari eta eskoletan eskolatze-tasak handitzeari dagokienez, batez ere emakumeen eta nesken kasuan. Neurri handi batean, alfabetatzeko gutxieneko maila handitu da, baina ahaleginak areagotu behar dira hezkuntza unibertsalaren helburuak lortzeko bidean aurrerapen handiagoak lortzeko. Adibidez, lehen hezkuntzan haurren arteko berdintasuna lortu da munduan, baina herrialde gutxik lortu dute helburu hori hezkuntza-maila guztietan.

Lotura duten xedeak

- 4.1 Hemendik 2030era bitartean, haur guztiek lehen eta bigarren mailako irakaskuntza amaituko dutela ziurtatzea. Irakaskuntza hori doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izango da, eta ikaskuntzako emaitza egokiak eta eraginkorrak sortuko ditu.
- 4.2 Hemendik 2030era, haur guztiek lehen haurtzaroan eta eskolaurreko hezkuntza kalitatezkoan arreta- eta garapen-zerbitzuetarako sarbidea izango dutela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prestatuta egon daitezen.
- 4.3 Hemendik 2030era bitartean, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza teknikoa, profesionala eta goi-mailako prestakuntza jasotzeko aukera izango dutela ziurtatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne.
- 4.4 Hemendik 2030era, enplegua, lan txukuna eta ekintzailatza lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak, bereziki teknikoak eta profesionalak, dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.
- 4.5 Hemendik 2030era bitarte, hezkuntzan genero-desberdintasunak desagerraraztea eta irakaskuntzaren eta lanbide-heziketaren maila guztietan berdintasunezko sarbidea bermatzea pertsona ahulentzat, desgaitasuna duten pertsonak, herri indigenak eta kalteberatasun-egoeran dauden haurrak barne.
- 4.6 Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, gizonak zein emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikari buruzko oinarritzko nozioak dituztela ziurtatzea.
- 4.7 Hemendik 2030era bitartean, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen iraunkorrerako eta bizi-estilo iraunkorretarako hezkuntzaren bidez, giza eskubideen bidez, genero-berdintasunaren bidez, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenaren bidez, munduko herritarren bidez, kultura-aniztasuna balioetsiz eta kulturak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpenaren bidez.

- 4.a Haurren eta desgaitasuna duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan hartzen dituzten hezkuntza-instalazioak eraikitzea eta egokitzea, eta guztientzako ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta eraginkorrak eskaintzea.
- 4.b Hemendik 2020ra, nabarmen handituko da garapen-bidean dauden herrialdeetarako (bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeetarako, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietarako eta Afrikako herrialdeetarako) eskuragarri dagoen beka-kopurua, ikasleek goi-mailako irakaskuntza-programetan matrikulatu ahal izan daitezen, lanbide-heziketako programak eta programa teknikoak, zientifikoak, ingeniarietakoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologikoak, herrialde garatuetakoak eta garapen-bidean dauden beste herrialde batzuetakoak barne.



Generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria baizik. Emakumeei eta neskatoei hezkuntzarako sarbidean berdintasuna, arreta medikoa, lan txukuna eta ordezkaritza ematen bazaie erabaki politiko eta ekonomikoak hartzeko prozesuetan, ekonomia jasangarriak bultzatuko dira eta gizarteei eta gizateria osoari mesede egingo zaie.

Lotura duten xedeak

- 5.1 Mundu osoko emakume eta neska guztien aurkako diskriminazio mota guztiak amaitzea.
- 5.2 Emakume eta neska guztien aurkako indarkeria-mota guztiak ezabatzea eremu publikoan eta pribatuan, sexu-salerosketa eta -esplotazioa eta beste esplotazio-mota batzuk barne.
- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lanak aitortzea eta baloratzea, zerbitzu publikoen, azpiegituren eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako eta ugalketa-eskubideetarako sarbide unibertsala ziurtatzea, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programarekin, Beijingeko Ekintza Plataformarekin eta azterketa-hitzaldien azken dokumentuekin bat etorritik adostutakoaren arabera.
- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, bai eta lurraren eta beste ondasun-mota batzuen jabetza eta kontrola, finantza-zerbitzuak, herentzia eta baliabide naturalak eskuratzeko aukerari ere, lege nazionalen arabera.
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologia, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- 5.c Genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.



Lan txukunaren etengabeko aukera faltak, inbertsio eskasak eta kontsumo baxuak gizarte demokratikoen azpian dagoen oinarritzko kontratu sozialaren higadura eragiten dute: guztiok aurrerapena partekatzeko dugun eskubidea. Garapen ekonomiko iraunkorra lortzeko, gizarteek beharrezko baldintzak sortu beharko dituzte pertsonak kalitatezko enpleguak eskura ditzaten, ekonomia sustatuz ingurumenari kalterik egin gabe. Lan-aukerak ere egon beharko dira lan egiteko adinean dauden herritar guztientzat, lan-baldintza txukunekin.

Lotura duten xedeak

- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, produkzio-jarduerak, lanpostu txukunen sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza bultzatzeko, eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundera sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratuz ere.
- 8.5 Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan txukuna lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasuna duten pertsonak barne, baita balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzea ere.
- 8.6 Hemendik 2020ra, enplegatutik ez duten eta ikasketarik egiten ez duten eta gaikuntzarik jasotzen ez duten gazteen proportzioa nabarmen murriztea.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea nahitaezko lana desagerrarazteko, gaur egungo esklabotza eta pertsonen salerosketa moduen amaiera emateko, eta haurren lan modurik okerrenak, errekrutatzea eta haur soldaduak erabiltzea barne, debekatzea eta ezabatzea ziurtatzeko, eta, hemendik 2025era bitartean, haurren lan mota guztiei amaiera ematea.
- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.
- 8.b Hemendik 2020ra, gazte-enplegurako mundu-estrategia bat garatzea eta abian jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



Herrialdeen arteko diru-sarreraren desberdintasuna murriztu ahal izan den arren, herrialdeen barruan bertan handitu egin da desberdintasuna. Gero eta adostasun handiagoa dago hazkunde ekonomikoa ez dela nahikoa pobrezia murrizteko, pobrezia ez bada inklusiboa eta ez baditu kontuan hartzen garapen iraunkorraren hiru dimentsioak: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

Desberdintasuna murrizte aldera, politika unibertsalak aplikatzea gomendatu da, egoera ahulean eta baztertuta dauden biztanleen beharrei arreta berezia emateko.

Lotura duten xedeak

- 10.2 Hemendik 2030era bitartean, pertsona guztien gizarteratzea, ekonomia eta politika bultzatzea eta sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna,

arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edozein dela ere.

- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen arteko desberdintasuna murriztea, baita lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezabatuz eta horretarako egokiak diren legediak, politikak eta neurriak sustatuz ere.
- 10.4 Politika fiskalak, soldatakoak eta gizarte-babeseakoak onartzea, eta pixkanaka berdintasun handiagoa lortzea.



Arazo asko daude hiriak mantentzeko, lanpostuak eta oparotasuna sortzen jarrai dezaten, lurraren eta baliabideen gainean presiorik egin gabe. Hirietako arazo komunak hauek dira: auto-pilaketa, oinarritzko zerbitzuak emateko funtsik eza, etxebizitza egokiaren eskasia eta azpiegituraren narriadura.

Lotura duten xedeak

- 11.1 Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egokiak, seguruak eta eskuragarriak izango dituztela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea.
- 11.2 Hemendik 2030era bitartean, garraio-sistema seguruak, eskuragarriak, irisgarriak eta jasangarriak eskaintzea guztiontzat, eta bide-segurtasuna hobetzea, bereziki garraio publikoa zabalduz, arreta berezia jarritz kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen, emakumeen, haurren, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adineko pertsonen beharrazane.
- 11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbide unibertsala eskaintzea, bereziki emakume eta haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.



Kontsumo eta ekoizpen jasangarria da baliabideen erabilera eraginkorra eta efizientzia energetikoa sustatzea, azpiegitura jasangarriak sustatzea eta oinarritzko zerbitzuak, enplegu ekologiko eta txukunak eta guztientzako bizi-kalitatea hobetzea. Hori aplikatzeak garapen-plan orokorrak lortzen, etorkizuneko kostu ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak murrizten, lehiakortasun ekonomikoa handitzen eta pobrezia murrizten laguntzen du.

Lotura duten xedeak

- 12.2 Hemendik 2030era bitartean, kudeaketa iraunkorra eta baliabide naturalen erabilera eraginkorra lortzea
- 12.3 Hemendik 2030era bitartean, munduko per capita elikagaien alferrik galtzea erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen mailan, eta elikagaien galerak murriztea ekoizpen- eta hornidura-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.
- 12.5 Hemendik 2030era bitartean, hondakinen sorrera nabarmen murriztea, prebentzio-, murrizte-, birziklatze- eta berrerabiltze-jardueren bidez.

- 12.8 Hemendik 2030era, mundu osoko pertsonak garapen iraunkorrerako eta bizimodu-eraketarako informazio eta ezagutza egokiak dituztela ziurtatzea, naturarekin harmonian.



Helburu horrek klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premia-azko neurriak hartzera bideratzen du bere ekintza. Klima-aldaketak kontinente guztietako herrialde guztiei eragiten die, eta eragin negatiboa du haien ekonomian, pertsonen bizitzan eta komunitateetan. Etorkizunean ondorioak okerragoak izango direla aurreikusten da. Eredu klimatikoak aldatzen ari dira, itsasoaren mailak handitzen ari dira, gertaera klimatikoak gero eta muturrekoagoak dira eta berotegi-efektuko gasaren emisioak historiako mailarik altuenetan daude orain. Jardun ezean, munduaren azaleraren batez besteko tenperatura 3 gradu zentigradu inguru igo liteke mende honetan.

Lotura duten xedeak

- 13.3 Klima-aldaketa arintzeari, klima-aldaketara egokitzeari, haren ondorioak murrizteari eta alerta goiztiarrari buruzko hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea.



Helburu horren ardatza da garapen iraunkorrerako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztientzako justiziarako sarbidea eskaintzea eta maila guztietan erakunde arduratsu eta eraginkorrak eraikitzea. Gatazkek eragindako herrialdeetan lehen mailako eskola uzten duten haurren tasa ehuneko 50ekoa izan zen 2011n, 28,5 milioi haur, alegia.

Lotura duten xedeak

- 16.1 Indarkeria-mota guztiak eta dagozkien heriotza-tasak nabarmen murriztea mundu osoan.
- 16.2 Haurren aurkako tratu txarrak, esplotazioa, salerosketa eta indarkeria- eta tortura-mota guztiak amaitzea.
- 16.9 Hemendik 2030era arte, nortasun juridiko baterako sarbidea ematea guztiei, batez ere jaiotzen erregistroaren bidez.



Gauzatze-bitartekoak indartzea eta Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza biziberritzea

Lotura duten xedeak

- 17.16 Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza indartzea. Aliantza hori hainbat interesdunen arteko aliantzek osatzen dute, eta ezagutzak, gaitasun teknikoak, teknologia eta finantza-baliabideak trukatzeko mobilizatzen eta sustatzen dute, Garapen Iraunkorreko Helburuak herrialde guztietan lortzen laguntzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan.
- 17.17 Esparru publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak eratzea bultzatzea eta sustatzea, elkarten esperientzia eta baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.



3.

GAZTEAK EUSKADIN

3. Gazteak Euskadin

Kapitulu hau Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokiak emandako azken datuetatik abiatuta egin da. Honako arlo hauek hartzen dira kontuan: Demografia eta biztanleria, Hezkuntza, Enplegua eta Egoera ekonomikoa, Emantzipazioa eta Etxebizitza, Osasuna, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Balioak eta Jarrerak eta Aisialdia.

Jarraian, Gazte Planaren esparruan aintzat hartutako arlo bakoitzerako EAEko gazterari buruzko funtsezko adierazleak aurkezten dira.

3.1. Testuinguru demografikoa


Gazteak EAEko biztanleriaren % 15,2 dira

2025eko urtarrilaren 1ean, Euskadiko gazteak **337.527** ziren, 15 eta 29 urte bitartekoak, hau da, **biztanleria osoaren % 15,2**. Gazteen sexuaren arabera banaketak erakusten du % 51,5 gizonak direla (173.857) eta % 48,5 emakumeak (163.670).

Biztanleria gaztearen banaketa bost urteko adin-taldean arabera nahiko homogeneoa da, antzeko pisu erlatiboekin: 15-19 urteko taldea kolektiboaren % 33,7 da (113.713 pertsona), 20-24 urteko taldeak % 33,7 (113.714 pertsona) eta gainerako % 32,6 25-29 urteko taldeak (110.100 pertsona)..

3.1 grafikoa Biztanleria gaztea (15-29 urte) bost urteko adin-taldean eta sexuaren arabera. 2024

(absolutuak)




Iturria: EUSTAT, Biztanleen Udal Estatistika.

Lurralde historikoen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 15-29 urteko biztanleriaren % 51,2 Bizkaian bizi da (172.792 pertsona), % 34,1 Gipuzkoan (114.993 pertsona) eta gainerako % 14,7a Araban (49.742 pertsona).

Testuinguru horretan, **gazteen indizeak** (edo 15-29 urteko pertsonen proportzioak biztanleria osoarekiko) aldaketa pixka bat positiboa izan du, 2016-2017 aldiko erregistrorik txikiena izatetik (% 13,1) 2025ean **% 15,2** izatera igaro baita..

3.2 grafikoa Euskadiko gazteen indizearen bilakaera




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuetan oinarrituta. Biztanleen Udal Estatistika.

Bost gaztetik bat atzerritarra da

Atzeritar jatorriko gazteak, 15 eta 29 urte bitartekoak, **72.528** dira, azken hamarkadako kopururik handiena, eta ia % 2 igo da 2024aren aldean. Hala, Euskadiko bost gaztetik bat atzerritarra da (% 21,5)

3.3 grafikoa Euskadin bizi diren 15-29 urteko atzerritarren bilakaera

(absolutuak)




Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua. Biztanleriaren egitura

Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina: 32,4 urte

Lehen semea edo alaba jaiotzean, batez besteko adina 2024koa zen, **32,4 urtekoa**, eta zifra hori 2023an lortutakoaren berdina da. Nabarmendu behar da adierazle horrek alde nabarmenak dituela amaren nazionalitatearen arabera: Espainiako nazionalitatea duten emakumeek batez beste 32,4 urte dituzte, eta atzerriko nazionalitatea duten emakumeek, berriz, 28,7 urte.

3.4 grafikoa Lehen seme-alaban amatasunerako batez besteko adinaren bilakaera

(nazionalitatearen arabera, urteak)




Iturria: EUSTAT, Jaiotzen estatistika

Seme-alabak izan nahi dituzten gazteak: % 74,4

Seme-alabarik ez duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, % 74,4k esan du nahiko edo asko eduki nahiko lituzkeela, 2025ean. Emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait txikiagoa da (% 73,8 eta % 75,4, hurrenez hurren).

2025eko emaitza 2015ean erregistratutakoa (% 84,7) baino ehuneko 10 puntu txikiagoa da. Hala ere, 2025ean lortutako adierazleak gora egin du aurreko urteetan ikusitako balioekin alderatuta, 2021eko minimoa % 66,9 izanik.

3.5 grafikoa Seme-alabak izan nahi dituztela dioten 15-29 urteko pertsonen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia

3.2. Hezkuntza

Euskadik eskola-uztearen tasan lortutako emaitza hobetu du: % 3,6


Eskola-uzte goiztiarraren tasak bigarren etapako bigarren hezkuntza amaitu ez eta elkarrizketa egin aurreko lau asteetan inolako ikasketa-prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa neurtzen du, haien adineko gazteen guztizkoari dagokionez. Bere hezkuntza-maila gorena (0-2) ISCED-2011¹ren maila da, eta ez du hezkuntzarik edo prestakuntzarik jasotzen (formala eta ez-formala).

Eguneratutako emaitzen arabera (2025), Euskadik eskola-uzte goiztiarraren tasa % 3,6koa da, Estatu osoari (% 13) eta EBri (% 9,3) dagokiena baino balio nabarmen txikiagoa. Adierazle horren bilakaerak erakusten du azken urteetan etengabe jaitsi dela adierazle hori (% 12,4koa zen 2012an).

Eskola uztearen tasa txikiagoa da emakumeen artean (% 2,7) gizonen artean baino (% 4,5). Generoaren arabera alde hori ia aztertutako aldi osoan mantendu da.

3.6 grafikoa Eskola behar baino lehenago uztearen tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eurostat

1 sced-2011 International Standard Clasation on Education (Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua) da, herrialdeen arteko hezkuntza-mailak alderatzeko erabiltzen dena. 0-2 mailak eskolaurrekoak, lehen hezkuntzakoak eta bigarren hezkuntzako lehen etapakoak dira.


25-34 urtekoen % 61ek hirugarren mailako ikasketak ditu

Goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasak hirugarren mailako hezkuntzako titulazioa duten 25-34 urteko biztanleen ehunekoari egiten dio erreferentzia, adin-talde horretako pertsona guztiekiko. Hirugarren hezkuntzat hartzen dira ISCED-2011ko 5. mailatik 8. mailara bitartean dauden ikasketak, goi-mailako heziketa-zikloak, unibertsitate-graduak, masterrak eta doktoretzak hartzen dituztenak.

25-34 urteko gazteen % 61,2k goi-mailako titulazioa du Euskadin, eta horrek hobekuntza nabarmena adierazten du hamarkada bat lehenagoko egoerarekin alderatuta. Genero-ikuspegitik, emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da (% 66,2 eta % 56,3).

3.7 grafikoa 25-34 urteko gazteen goi-mailako hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATEk 2021az geroztik eta Eurostatek aurreko urteetan emandako datuetan oinarrituta

Zientzian eta teknologian graduatutako pertsonen % 35 emakumeak dira

Grafikoan ikus daitekeenez, **zientzian eta teknologian graduatutako 35 urtetik beherakoen herena emakumeak dira**, modu egonkorrean. Ondorioz, 2024-2025 ikasturtean, emakumeen pisu erlatiboa % 35ekoa izan zen, eta horrek adierazten du ikasketa horietan emakumeen presentzia txikia izan zela eta joera hori ez dela hobetu.

3.8 grafikoa Zientzian eta teknologian graduatutako emakumeen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATEN datuetatik abiatuta (Unibertsitate-Estatistika)

Ikasle gehienek (unibertsitateaz kanpokoak) euskaraz egiten dituzte ikasketak


2024-2025 ikasturtean, unibertsitateaz² kanpoko ikasleen % 68,7k **D hizkuntza-ereduan** egiten ditu ikasketak (euskaraz, gaztelania ikasgai gisa hartuta).

Adierazi behar da alde nabarmenak daudela lurralde historikoen artean D eredua ezartzeari dagokionez, Araban eta Bizkaian presentzia txikiagoa baitute (% 53,9 eta % 64,3, hurrenez hurren), eta Gipuzkoan, berriz, handiagoa (% 82,4). Azken ikasturtean zertxobait murriztu da Araban eta Gipuzkoan ikusitako ehunekoa.

D ereduaren garrantziak **euskararen ezagutza areagotzen laguntzen du gazteen artean**. Eustaten Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera (2024), 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 80,5ek dio euskaraz ondo hitz egiten duela (% 78,5 2019an). Ehuneko hori % 83ra igotzen da emakumeen artean, eta % 78ra gizonen artean.

3.9 grafikoa D ereduan matrikulatutako unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoaren bilakaera, ikasturtea hasi zen urtearen arabera

(lurralde historikoen arabera, %)



Iturria: Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetan oinarrituta (Eskola-jardueraren estatistika).


² Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hasierako lanbide-prestakuntzako programak eta helduen hezkuntza.

Hamar gaztetik ia sei hirueledunak dira: % 56,2

Hirueletasun-tasa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ongi hitz egiten dutela adierazten duten 15-29 urteko gazteen ehunekoari dagokio. 2024an, tasa hori % 56,2 izan zen Euskadin, eta epe luzerako ikuspegitik hobekuntza nabarmena izan zen, nahiz eta azken aldian zertxobait murriztu den: datuek jaitsiera txiki bat adierazten dute 2022rekiko (% 57,6).

3.10 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hirueletasunaren bilakaera

(lurralde historikoen arabera, %)



Iturria: EUSTAT, Bizi-baldintzen inkesta.


3.3. Enplegua eta egoera ekonomikoa

EAEko gazteen okupazio-tasa % 46,5koa da

Lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde horretako pertsona guztiekiko, % 46,5 da 2025ean, eta balio handiagoa dute gizonek (% 47,9 eta emakumeek % 45).

Bilakaerak erakusten du etengabe hobetu dela okupazio-tasa, eta azken urtean egonkortu egin dela.

3.11 grafikoa 16-29 urteko gazteen enplegu-tasaren bilakaera.




Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Lanbide Heziketaren enplegarritasun handia

2024an Lanbide Heziketako tituludunen % 84,6 lanean ari zen ikasketak amaitu eta urtebetera, prestakuntza-bide horri lotutako enplegarritasun handia berretsiz. Emaitzak berdinak dira sexuaren arabera.

3.12 grafikoa Lanbide Heziketako tituludunen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebetera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: LANBIDE, Azterlanak eta Estatistikak, Laneratzea.

Unibertsitatearen enplegarritasun handia

Era berean, euskal unibertsitateen enplegarritasun handia ikusten da, unibertsitate-ikasketak amaitu eta hiru urtera lanbide-egoera erreferentziazat hartuta. Testuinguru horretan, **EAEko hiru unibertsitateetako batean ikasketak amaitu dituzten hamar pertsonatik bederatzik enplegua du**, eta emaitza oso antzekoa da gizonentzat eta emakumeentzat (% 92 eta % 90, hurrenez hurren). 2024an ikusitako emaitzak uzteko txiki bat du (ehuneko puntu bat) 2023an egiaztatutakoarekin alderatuta.

3.13 grafikoa Unibertsitate-promozioetako okupazio-tasaren bilakaera, ikasketak amaitu eta hiru urtera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: LANBIDE


Gazteen langabezia-tasak behera egin du (16-29 urte bitarte): % 10,3

Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren gainean kalkulatu da, eta enplegurik ez duten baina lan egiteko prest dauden eta lana modu aktiboan bilatzen ari diren pertsonen ehunekoari dagokio. 2025ean, gazteen langabezia-tasa (16-29 urte) % 10,3koa da, azken hamarkadako tasarik txikiena, eta 2014an ikusitako balioaren oso azpitik dago (% 29,5).

Gainera, ia ez dago alderik generoaren arabera, emakumeen langabezia-tasa (16-29 urte) gizonena baino pixka bat handiagoa baita (% 10,4 eta % 10,1, hurrenez hurren).

3.14 grafikoa 16-29 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Behin-behinekotasunaren jaitiera (16-29 urte): % 40,6

Soldatapeko enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 40,6k **aldi baterako kontratua** du. Adierazle horrek azken urteetan izan duen bilakaera positiboa izan da, eta nabarmen behatutako balioen azpitik kokatu da, adibidez, 2021ean % 65,5ko izan zen, nahiz eta 2025ean gorakada txiki bat izan duen.

3.15 grafikoa 16-29 urteko soldatapekoen eta 16 urteko eta gehiagoko soldatapekoen aldi baterako kontratuen tasaren bilakaera

(%)




Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Lanaldi partzialeko enplegua % 32an mantendu da

Lanaldi partzialeko enplegu-tasak adierazten du astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. 2025ean, kolektibo horren heren batek lanaldi partzialean egiten zuen lan (% 32,0), eta proportzio horrek intzidentzia handiagoa du emakume gazteen artean (% 39,7 eta % 25,5, hurrenez hurren).

3.16 grafikoa Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).


Hamar gaztetik zortzik (15-29 urte) beren prestakuntzarekin bat datorren lana aurkitzeko itxaropena dute

Enplegu egokituaren espektatibak % 82 dira, eta agerian geratzen da 15-29 urteko gazte gehienek ikasketak amaitzean beren prestakuntzarekin bat datorren enplegu bat aurkitzeko itxaropena dutela. Proportzio horrek gora egin du azken hamarkadan, lan-merkatuaren bilakaera positiboaren ildotik, eta horrek gazteen enplegarritasun kualifikaturako ingurune hobea iradokitzen du.

Gizonen eta emakumeen enplegu egokituaren itxaropenak oso antzekoak dira.

3.17 grafikoa Ikasketak amaitzean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek duten enplegu-itxaropenaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira seriea.

Gazteen batez besteko soldata garbia (18-34 urte) 1.564 eurokoa da hilean

18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen hileko **batez besteko soldata** garbia (aparteko ordainsari hainbanatuak barne) 1.564 eurokoa da, baina 1.438 eurora arte jaisten da emakumeen kasuan, generoaren arabera soldata-arrakala agerian utziz (1.617 euro da gizonentzako batez bestekoa).

3.18 grafikoa Soldatapeko gazteen hileko batez besteko soldata garbiaren bilakaera 18-34 urte

(sexuaren arabera, eurotan)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia

Norberaren konturako enpleguaren presentzia txikia gazteen artean: % 4,2

20-29 urteko gazte okupatuen % 4,2k soilik egiten du **lan norberaren kontura**, eta horrek soldatapeko enplegua nagusi dela erakusten du. Gainera, gazteen autoenpleguaren tasa Europako batez bestekoaren (% 6,5) azpitik dago.

3.19 grafikoa 20-29 urteko gazteen norberaren konturako enpleguaren bilakaera Euskadin eta EB-27n

(%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila (Lan merkatuaren errolda, LME)

Laneko ezbehar-tasa (16-34 urte): 40,9 mila biztanleko

Laneko ezbehar-tasaren indizeak baja eragin duten lan-istripuen kopurua adierazten du afiliatutako mila pertsonako. Lan-istripuek lantokian eta in itinere gertatutakoak barne hartzen dituzte.

2024an, 16 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, laneko ezbehar-tasa milako 40,9 izan zen, hau da, apur bat jaitsi da 2023arekin alderatuta. Ezbehar-tasak handiagoa izaten jarraitzen du gizonen artean (56,9), emakume gazteen artean baino bi aldiz gehiago (22,8). Alde horren arrazoia da, hein handi batean, industria eta eraikuntza bezalako sektoreetan gizonen presentzia handiagoa dela, tradizioz lan-arrisku maila handiagoei lotuta egon direnak.

3.20 grafikoa 16-34 urteko gazteen lan-ezbeharren indizea, sexuaren arabera (tasa 1.000 biztanleko)




Iturria: OSALAN (Laneko ezbeharren estatistikak)

Pobrezia errealearen tasa gazteen etxebizitzetan: % 16,6

35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeko unitateetan, benetako pobrezia errealearen tasa % 16,6 da (emakumeentzat % 16,3 eta gizonezkoentzat % 16,9). Tasa hau igo egin da azken bi urte hauetan.

3.21 grafikoa Pobrezia errealearen tasaren bilakaera etxe gazteetan

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila (Pobrezia eta gizarte desberdintasun inkesta, PGDI)

3.4. Emantzipazioa eta etxebizitza


Emantzipatzeko batez besteko adina: 29,8 urte

2025ean, EAEko **biztanleen batez besteko emantzipazio-adina** 30,1 urtekoa zen; adierazle hori 29,4 urtekoa zen emakumeen artean, eta 30,8 urtekoa gizonen artean.

2024ko datuen arabera, emaitzak alderatu ahal izateko, Euskadirentzat balioa Europako batez bestekoa (26,2 urte) baino hiru urte gehiagokoa zen (29,8), baina Estatu osokoa (30,0) baino pixka bat txikiagoa. Gainera, gizonak emakumeak baino pixka bat beranduago emantzipatzen dira batez beste (30,4 eta 29,2 urte, hurrenez hurren).

3.22 grafikoa Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin eta EB27n. 2024

(urteak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta EUROSTAT (Gazteen estatistikak, Youth data).

Emantzipazio-tasa (18-34 urte): % 32,1

2025ean, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 32,1 emantzipatuta bizi zen, eta horrek esan nahi du jaitsiera txiki bat izan dela 2024ko tasarekin alderatuta (% 32,8 koadro), eta berretsi egiten du adierazle horrek okerrera egin duela azken urteetan (% 36,8 2015ean). Emakumeek gizonek baino emantzipazio-tasa handiagoa dute (% 36 eta % 28,2, hurrenez hurren), eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienak emantzipatuta daude (% 71,4 eta % 6,4, hurrenez hurren).

3.23 grafikoa 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen emantzipazio-tasa. 2025

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuetan oinarrituta (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta)


Etxebizitza eskuratzeko (jabetzan edo alokairuan) ahalegin ekonomiko handia da

Etxebizitza eskuratzeko kostua pertsona batek etxebizitza ordaintzeko erabili behar duen hileko soldata garbiaren proportziotik abiatuta kalkulatzen da.

Jabetzako etxebizitza librearen kasuan, kalkulatzen da 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek bere **soldata garbiaren % 64,2 hipoteka ordaintzeko** erabili behar duela. Ahalegin ekonomiko hori handiagoa da emakume gazteen kasuan (% 69,9, eta gizonen kasuan, berriz, % 62,1), eta bereziki nabarmena da 18-24 urtekoen taldean (% 85).

3.24 grafikoa 2023 Etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen artean. 2024

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %/soldata garbia)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia. Egoitza-emantzipazioaren kostua Euskadin.

Alokairuko etxebizitza librearen kasuan, 18 eta 34 urte bitarteko gazteek **soldata garbiaren % 52,4 bideratzen dute errenta ordaintzera**, jabetzako etxebizitzarako kalkulaturako ahalegina baino pixka bat txikiagoa. Ahalegin ekonomiko handiagoa egiten dute emakumeek (% 57) eta 18 eta 24 urte bitarteko gazteenek (% 69,4).

3.25 grafikoa Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostua 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteen artean. 2024

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %/soldata garbia)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia. Egoitza-emantzipazioaren kostua Euskadin.

Alokairua, etxebizitza eskuratzeko aukera gazteen % 45rentzat

Alokairuan emantzipatutako 18-34 urteko gazteen ehunekoak, adin-talde bereko biztanleria emantzipatu guztiarekiko, 2023an % 44,5 izatera iritsi da, 2021ean ikusitako balioa (% 42,1) baino zertxobait handiagoa.

3.26 grafikoa Alokairu-erregimenean emantzipatutako 18-34 urteko pertsonen ehunekoaren bilakaera




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren datuetan oinarrituta (Etxebizitza-beharrei eta -eskariei buruzko inkesta).

3.5. Osasuna

Osasun fisikoarekiko gogobetetasuna: 7,6/10

Osasun fisikoarekiko gogobetetzea maila positiboan dago 15-29 urteko gazteen artean 2024an, 10etik 7,6ko batez besteko puntuazioarekin. Hala ere, balorazio hori, aurreko urtekoaren antzekoa izan arren, jaitsi egin da 2015etik (10etik 8,8). Lortutako emaitzan ia ez da alderik ikusten gizonen eta emakumeen artean (7,7 eta 7,6, hurrenez hurren).

3.27 grafikoa 15-29 urteko pertsonen osasunarekiko gogobetetze-mailaren bilakaera (eskala, 0tik 10era)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia

Osasun mentalarekiko gogobetetasuna: 7,4/10

Osasun mentalarekiko gogobetetzeari dagokionez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen puntuazioa 10etik 7,4koa izan da 2025ean, eta igoera txikia izan du 2024an ikusitako balioarekiko (7,2/10). Balorazioa pixka bat handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (7,6 eta 7,2, hurrenez hurren).

3.28 grafikoa 15-29 urteko pertsonen osasun mentalarekiko gogobetetze-mailaren bilakaera

(0tik 10erako eskala)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia

Droga-mendekotasuneko tratamenduaren hasiera: 1,7 milako

Droga-mendetasunagatik tratamenduren bat hasi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera nahiko egonkorra izan da: milako 1,7 izan dira 2024an, 2021-2023an baino balio txikiagoa. Sexuen arteko aldea esanguratsua da: intzidentzia handiagoa da gizonen artean (2,8 mila biztanleko) emakumeen artean baino (0,6).

3.29 grafikoa Droga-mendetasunengatik tratamenduren bat hasi duten gazteen bilakaera, 1.000 biztanleko




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Antsietate- eta/edo depresio-sintomen prebalentzia: % 18,9

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 18,9k adierazi zuen, 2023an, **antsietate- edo depresio-sintomak** izan zituela inkesta egin aurreko lau asteetan. Ehuneko hori % 25,6 izan zen emakume gazteen artean, eta % 12,4 gizonen artean. Eskura zegoen informazioarekin ikusitako bilakaerak 2018-2023 aldian egoerak okerrera egin zuela erakutsi zuen argi eta garbi (ehuneko hamar puntu baino gehiagoko igoera).

3.30 grafikoa Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentziaren bilakaera 15-29 urteko gizonen eta emakumeen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osasun Inkesta (EAEOI).

Bakardade-sentimendua (beti edo askotan) gazteen artean: % 7,3

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 7k adierazi zuen 2023an bakarrik sentitzen zela beti edo askotan. Ehuneko hori handiagoa zen emakumeen artean (% 8,9 eta gizonen artean % 5,7). Eskuragarri dauden datuek erakusten dutenez, bakardade sentimendu horren presentziak nabarmen egin du gora 2018. urtearekin alderatuta (% 1,6).

3.31 grafikoa Bakardade sentimenduaren bilakaera 15-29 urteko gizon eta emakume gazteen artean

(sexuaren arabera,%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osasun Inkesta (EAEOI).

Sedentarismo-tasa gazteen artean: % 10

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 10ek azken zazpi egunetan **jarduera fisikorik** (moderatua edo bizia) egin ez duela adierazi zuen 2023an. Joera hori nahiko antzekoa da emakumeen (% 10,6) eta gizonen (% 9,3) artean. 15-19 urtekoen taldea da sedentarismo-tasa txikiena duena (% 6,7; 20-24 urtekoen artean, berriz, emaitza txarragoa da: % 13,5).

3.32 grafikoa Sedentarismo-tasa 15-29 urteko gazteen artean. 2023

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osasun Inkesta (EAEOI).

Gazteen obesitate-tasa (15-29 urte): % 4,8

2023an, **15-29 urteko gazteen % 4,8k dute gorputz-masaren indizea (GMI) 30etik gorakoa**, eta atalase hori obesitatearen sailkapenari dagokio. Proportzio hori nahiko egonkor mantendu da, nahiz eta azken bi neurketetan % 5etik behera mantendu den.

3.33 grafikoa Obesitate-tasaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osasun Inkesta (EAEOI).


Alkohol-kontsumo arriskutsua (15-29 urte): % 34,4

Kontsulta egin aurreko azken hilabeteen **arriskutsutzat**³ **hartutako kantitateetan alkohola** kontsumitu zuten 15-29 urteko gazteen ehunekoa % 34,4 zen 2023an, eta beheranzko joera agertu du 2008tik.

Gizon gazteen gehiegizko kontsumo-tasa emakumeena baino handiagoa da (% 37,6 eta % 30,8, hurrenez hurren, 2023an). Hala ere, alde hori murrizten joan da denboran zehar.

3.34 grafikoa Alkohol-kontsumo arriskutsua duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera,%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

³ Astean 14 eta 7 alkohol unitate estandar baino gehiago kontsumitzea gizonentzat eta emakumeentzat, hurrenez hurren.

Tabakoaren ohiko kontsumoaren etengabeko jaitsiera: % 17,4

2023an, gazteen artean **tabakoaren ohiko kontsumoa** % 17,4ra murriztu zen, serie historiko osoko baliorik txikiena erregistratuz. Sexuaren arabera oso txikiak dira, baina emakumeei dagokien adierazlea zertxobait txarragoa da (% 17,8, gizonen kasuan, aldiz, % 17).

3.35 grafikoa Egunero tabakoa kontsumitzen duten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa

(sexuaren arabera,%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Kanabisaren kontsumoak behera egin du: % 9,7

15-29 urteko pertsonen % 9,7k adierazi du cannabis kontsumitu duela inkesta egin aurreko 30 egunetan. Cannabisaren kontsumoa handiagoa da gizon gazteen artean (% 13,8) emakume gazteen artean baino (% 5,2).

3.36 grafikoa Cannabis azken 30 egunetan kontsumitu duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera,%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Jazarpen-pertzepzioa sare sozialetan: % 21,6


2025ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen **% 21,6k adierazi zuen mezu etengabeak, mehatxuak, iruzkin desatseginak, irainak eta abar bidaltzen zituen norbaiten jazarpena sentitu zuela noizbait.**

Jazarpen-pertzepzioa handiagoa da sare sozialetan emakume gazteen artean (% 26,5) gizon gazteen artean baino (% 16,9).

Bestalde, emaitza aldatu egiten da adin-taldean arabera gazteen artean: sare sozialetan jazarpen-pertzepzioa % 25,5 da 20-29 urtekoen artean eta % 14,1 15-19 urtekoen artean.

3.37 grafikoa Gazteek sare sozialetan jazarpena hautematea. 2025

(sexuaren eta adin-taldean arabera,%)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Sexu-transmisiozko infekzioen tasak gora egin du

2024an, **sexu-transmisiozko 82 infekzio berri** erregistratu ziren (infekzio gonokozikoa, sifilisa edo chlamydia) 15 eta 29 urte bitarteko 10.000 gazteko. Azken hamarkadako zifrarik altuena da, intzidentzia handienarekin gizonen artean (85,6) eta balio handienetako batekin emakumeen artean ere (78,2).

3.38 grafikoa Sexu-transmisiozko infekzioen tasa gazteen artean. 2024

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, 10.000 biztanleko tasa)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Nerabeen haurdunaldi-tasa: 5 haurdunaldi 15 eta 17 urte bitarteko 1.000 emakumeko

Nerabeen haurdunaldi-tasa (jaiotzak eta haurdunaldiaren borondatezko etendurak 15-17 urteko emakumeen artean) **5 da adin horretako 1.000 neskako (4,9 2023an)**

3.39 grafikoa 15-17 urteko nesken haurduntza nerabearen tasaren bilakaera

(lurralde historikoaren arabera, 1000ko tasa)



Iturria: Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia Eustaten (Jaiotzen estatistika) eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren (Haurdunaldiaren berariazko eteteen erregistroa) datuetan oinarrituta.

Trafiko-istripuak eta suizidioa dira heriotza-kausa ohikoenak gazteen artean (15-29 urte)

2024an, **zirkulazio-istripuengatik heriotza-tasa** 15 eta 29 urte bitarteko 1,8 pertsonakoa izan zen adin-tarte horretako 100.000 gazteko (1,8 eta 1,9 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakumeen kasuan, hurrenez hurren). Emaita horrek erakusten du behera egin duela aurreko urteko datuarekin alderatuta.

Suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa, berriz, 3,3 izan zen 15-29 urteko 100.000 gazteko (4,7 eta 1,9 gizon eta emakumeen kasuan, hurrenez hurren), eta igo egin zen 2023rekiko.

3.40 grafikoa 15-29 urteko gazteen suizidioagatik edo trafikoagatik heriotza-tasen bilakaera

(100.000 biztanleko tasak)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Hilkortasun-erregistroa.

3.6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa: 10,3 mila emakumeko

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa, 2024an, 10,3koa izan zen 15-29 urteko 1.000 emakumeko, azken hamarkadako baliorik handiena. Adierazle honek genero-indarkeriagatik salaketaren bat aurkeztu duten emakume gazteen kopurua adierazten du, adin-talde bereko 1.000 emakumeko. Gainera, 29 urte arteko emakumeen tasa 30 urte edo gehiagokoen tasa halako bi da (% 10,3 eta % 4,7, hurrenez hurren).

3.41 grafikoa Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera
(adinaren arabera, tasa 1.000ko)



Iturria: Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.


Emakume gazteen % 48k uste du gizonek aukera gehiago dituztela enplegua lortzeko

Prestakuntza eta esperientzia bera duten gizon eta emakume gazteek (15-29 urte) parte hartuko duten hautaketa-prozesu baten aurrean, **emakumeen % 48,5ek uste du gizonekoen aurkariak lanpostu hori lortzeko aukera gehiago izango lituzkeela.**

Aitzitik, gizonen % 23,1ek soilik partekatzen du pertzepzio hori, eta horrek agerian uzten du genero-desberdintasunaren pertzepzioan dagoen arrakala emakumeen eta gizonen artean enplegua lortzeari dagokionez.

3.42 grafikoa Lana lortzeari dagokionez, genero-desberdintasunaren pertzepzioaren bilakaera 15-29 urteko pertsonen artean

(sexuaren arabera)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Emakume gehienek beldurra sentitzen dute kalean gauez bakarrik ibiltzean

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 45,3k adierazi du beldurra sentitzen duela kalean gauez bakarrik ibiltzen denean. Pertzepzio hori nabarmen handitzen da emakume gazteen artean (% 69,7), eta gizon gazteen artean, berriz, prebalentzia askoz ere txikiagoa da (% 22,5).

3.43 grafikoa Gauez kalean bakarrik ibiltzeko beldurraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(%)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia


3.7. Balioak eta jarrerak

Gazteen % 14,9k boluntario-lanak egiten ditu

2025ean, **15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14,9k boluntario-lanen bat egiten zuen**. Indizea zertxobait handiagoa da emakumeen artean (% 15,7 eta gizonen artean % 14,3).

Adierazle horrek goranzko ibilbidea markatu du aztertutako aldian.

3.44 grafikoa Boluntariotza-lanen ehunekoaren bilakaera




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Asoziazionismo-tasa (15-29 urte): % 43,7

2025ean, **15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,7 elkarteren bateko kide da.** Asoziazionismo-tasa zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 43,7 eta % 43,4, hurrenez hurren).

3.45 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Politikarekiko interesak gora egiten jarraitzen du gazteen artean

Gazteen erdiak baino gehiagok (15-29 urte) oso edo nahiko interesatuta daude politikarekin (% 55). Proportzio hori bikoitza baino gehiago handitu da 2012tik. Oro har, gizonek emakumeek baino interes handiagoa dute (% 58,9 eta % 50,3, hurrenez hurren).

3.46 grafikoa 15-29 urteko gazteen politikarekiko interesaren bilakaera


(sexuaren arabera, %)

*Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia*

Gazteek modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan, baina beherakada txiki bat izan dute 2020arekin alderatuta

15-29 urteko biztanleen % 53,9k adierazi du modu aktiboagoan parte hartu nahiko lukeela gai publikoetan. Ehuneko horrek handia izaten jarraitzen badu ere, jaitsiera txiki bat dakar 2020arekin alderatuta (% 55,1). Gainera, sexuaren arabera aldea nabarmen murriztu da, gizonen % 54,4k eta emakumeen % 53,3k adierazi baitute desio hori.

3.47 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gai publikoetan parte hartzeko nahia
(sexuaren arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Euskadiko gazteen % 45,1ek modu jasangarrian kontsumitzen du

Kontsumo jasangarriaren indizeak ingurumena zaintzeari lotutako portaera hauek hartzen ditu kontuan: gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea, erosketako poltsa edo orga bera eramatea, etxeko zaborra hondakin motaren arabera bereiztea, uraren kontsumoa mugatzea eta garraio publikoa erabiltzea edo autoa partekatzea. Pertsona batek modu jasangarrian kontsumitzen duela uste izateko, iraunkortasunari lotutako bost portaera horietatik gutxienez lau egin behar ditu normalean.

2025ean, EAEko gazteen % 45,1ek modu jasangarrian kontsumitzen zuen, eta zifra horrek goranzko joera erakusten du 2012tik. Ez dago alde handirik emakumezko eta gizonezkoen emaitzen artean.

3.48 grafikoa Kontsumo iraunkorraren indizearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.


Garraio publikoaren eta bizikletaren erabilerak pixka bat behera egin du

2025ean, **15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 51k adierazi zuen egunero edo ia egunero erabiltzen zuela garraio publiko kolektiboa** (autobusa, trena, metroa, tranbia...). Ehuneko hori jaitsi egin da 2021etik (% 59,3). Azken hamarkadako bilakaerak euskal gazteen artean garraio publiko kolektiboaren erabilera handitzeko joera orokorra berresten du.

Dinamika hori **bizikletaren erabileran** ere ikusten da, ohiko joan-etorrietan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8,6k erabiltzen baitu garraiobide hori.

3.49 grafikoa Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren erabileraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(%)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

3.8. Aisia


Gazteen % 38k jarduera artistikoetan parte hartzen du

2025ean, 15 eta 29 urte bitarteko **gazteen % 37,9k jarduera artistikoren** batean parte hartu zuen, hala nola argazkigintzan, interpretazio musikalean, pinturan, idazketan, dantzan, kantu koralean, ikus-entzunezko ekoizpenean, antzerkian, bertsolaritzan edo beste arte plastiko batzuetan.

Ehuneko horrek beherakada bortitza erakusten du 2021eko datuekin alderatuta (% 76,8). Nabarmentzekoa da jarduera horietan emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa dela (% 44,8 eta % 31,1, hurrenez hurren). Fenomeno hori iraunkorra da serie historiko osoan.

3.50 grafikoa Arte-jardueretako parte-hartzearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia eta Kulturaren Euskal Behatokia.


Sare sozialen eguneroko erabilerak gora egiten jarraitzen du gazteen artean

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 71,7k hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen ditu egunero. Proportzio hori etengabe hazi da azken urteetan (% 33,1 zen 2016an), hein handi batean plataforma horien hedapenaren eta dibertsifikazioaren ondorioz.

Sare sozialen eguneroko erabilera orokortua dago emakumeen eta gizonen artean (% 71,2 eta % 72,7, hurrenez hurren), eta, bereziki, adin txikieneko taldeen artean (15 eta 19 urte bitartekoen % 72,4 eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 76,2). Aldiz, 25-29 urteko gazteen artean, ohiko erabilera hori % 66,3ra jaisten da.

3.51 grafikoa Sare sozialen erabilera 15-29 urteko gazteen artean*

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)



* Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, berehalako mezularitza-zerbitzuak izan ezik.

Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.


Gazteen % 59ak egiten du kirolen bat erregularri

15-29 urteko gazteen % 59,1ek asteen hirutan edo gehiagotan egiten du kirolen bat, baina sexuaren arabera alde nabarmenak daude: praktika txikiagoa da emakumeen artean (% 54,4) gizonen artean baino (% 63,3).

Adin-taldearen arabera aldaketak ere ikusten dira: kirol-jarduera ohikoagoa da 15-19 urtekoen artean (% 66,4), 20-24 urtekoen taldean behera egiten du (% 53,2) eta gora egiten du 25-29 urtekoen artean (% 57,2).

3.52 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kirol-praktika erregularra

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia

Gazteen % 56k libururen bat irakurri du aisialdiagatik

2025ean, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen **% 56k adierazi du azken hilabetean libururen bat irakurri duela aisialdiagatik** (% 58,1 2024an). Irakurtzeko ohiturari dagokionez, alde nabarmena dago sexuaren arabera. Izan ere, gizonen artean ehuneko hori % 46,6ra jaisten da, eta emakumeen artean, berriz, % 66ra

3.53 grafikoa Irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean (sexuaren arabera, %)



Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.


Hamarretik hiruk irakurri dute libururen bat euskaraz

2025ean, **euskaraz irakurtzen duten gazteen ehunekoa % 34,5ekoa da**, eta bilakaera positiboa izan du 2023tik aurrera (% 29,4).

Oro har irakurtzeko ohiturari dagokionez bezala, emakumeek neurri handiagoan aitortzen dute aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutela euskaraz kontsulta egin aurreko hiru hilabeteetan (% 35,4 emakume eta % 33,7 gizon)..

3.54 grafikoa Euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean

(adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Haurren, Nerabeen eta Gazteen Euskal Behatokia.

Gazteen % 37,8k lagunekin euskara erabiltzea 2021ean

2021ean, 16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetik ia lauk **erabiltzen zuten euskara lagunekin**. Hala ere, alde esanguratsuak zeuden lurralde historikoaren arabera: Gipuzkoa (% 63,6), Araba (% 27,5) eta Bizkaia (% 24,5) nabarmentzen ziren.

3.55 grafikoa Lagunarteko euskararen erabileraren bilakaera 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean

(lurralde historikoaren arabera, %)



*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
(Inkesta soziolinguistikoa).*



4.

V. GAZTE PLANAREN (2022-2026) EGITURA

4. 2022-2026 V. Gazte Planaren Egitura

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskarira egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzeko eta erakartzeko laguntza-programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatze laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatze eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeenak 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa- eta itsasertz-ingurunean enplegua eta gazteen ekintzailetza sustatzea
	1.5. Bazterketa-arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezia eta urratuta dauden gazteen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzea 1.5.2. Orientazioa indartzea eta laguntza espezifikoak ematea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan aurrera egitea enpleguan	1.6.1. Enplegua lortzeko eta lanbide-sustapenerako aukerak parekatze neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatze ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Bazterketa-arriskuko egoerak prebenitzea	4.1.1. Oinarriko premiak diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez estaltzeko baliabide nahikoak bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoeretan prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipaziorako eraldaketa kulturalari laguntzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1 Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Antsietate- eta depresio-egoeren aurreko arreta eta prebentzioa
	6.2. Gazteen artean arrisku-portaerak eta/edo adikzioak prebenitzea (substantziarekin eta substantziarik gabe), eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoa, alkohola, kalamua eta beste substantzia batzuk kontsumitzearen arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoarekin/sare sozialekin lotutako arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Hezkuntza afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisia osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Hezkuntza-sisteman aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Neurriak hartzea derrigorrezko ikasketen ondoko ikasketetan sartzen eta ikasketak amaitzen laguntzeko, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta kultura anitzekoa sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako hezte eta arrisku-egoerak prebenitzea	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Euskara sustatzea eta indartzea hezkuntza formalaren eremuan 7.3.2. Beste hizkuntza batzuetan hizkuntza-gaitasunak garatzen laguntzea, mundura gehiago zabaltzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Hasierako etapetatik ikerketa-bokazioak bultzatzea 7.4.2. Ikertzaile/teknologo gazteei laguntzea, bereziki emakume ikertzaileei
8. KULTURA Y EUSKARA	8.1. Gazteen kultura-kontsumoa eta kultura-jardueren garapena bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera eta euskarazko kultura-produktuen kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdiko hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Hezkuntza-aisialdian inplikaturako eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteen parte hartzeko eredu berriak eta elkarrizketarako espazioak sustatzea 10.1.2. Gazteen elkartegintza ekimenak babestea 10.1.3. Gazteen boluntariora bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen arteko kontziliazio erantzukidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala indartzea eta kaltea konpontzea
	11.3. Emakumeak ahaldunduz	11.3.1. Emakume gazteen ahaldunduz pertsonala eta kolektiboa bultzatzea 11.3.2. Emakume gazteen parte-hartzea sustatzea eremu eta espazio guztietan
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna integratzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Dibertsitate funtzionala integratzea	12.2.2. Irigarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria- eta tratatu txarreko egoerak desagerraraztea	13.1.1. Gurasoen seme-alabenganako indarkeriaren eta tratatu txarreko detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskola-jazarpenaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea (bullyinga eta ziberbullyinga) 13.1.3. Aisialdiko, kiroleko eta kaleko indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta
	13.2. Balioetan hezteak	13.2.1. Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Planetaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago lortzea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua sustatzea
		14.1.2. Mugikortasun iraunkorra sustatzea

4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltzea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkuak ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak emateko aukera
	15.3. Gaztearen arloko lankidetzak eta elkarlana hobetzeak	15.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoaren koordinazioa eta lankidetzak sustatzea 15.3.2. Erakunde publikoek eta erakunde pribatuek parte hartzeko espazioak sustatzea



5.

2026eko PLAN OPERATIBOA

5. 2026eko Plan Operatiboa

2026ko Plan Operatiboak 265 jarduera aurreikusten ditu guztira, eta **436.999.091 €**-ko aurrekontua bideratuko da horretarako (gazteriari begira).

Taula honetan, Eusko Jaurlaritzaren 2026ko Gazte Planaren ardatz estrategiko bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoa eta programatutako jardueren bolumena laburbiltzen dira:

		265 ekintza		437 M €	
					
1. ardatza	EMANTZIPAZIOA (BIZI)	90 ekintza	% 34,0	332.485.733 €	% 76,1
2. ardatza	GARAPENA (GOZATU)	90 ekintza	% 34,0	63.862.075 €	% 14,6
3. ardatza	ERAGINA (ERALDATU)	51 ekintza	% 19,2	38.217.116 €	% 8,7
4. ardatza	BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA	34 ekintza	% 12,8	2.434.168 €	% 0,6

41 jarduera berri programatu dira, **3.118.337 euroko** aurrekontuarekin.

2026ko nobedadeak		41 ekintza		3,1 M €	
					
1. ardatza	EMANTZIPAZIOA (BIZI)	7 ekintza	% 17,1	803.597 €	25,8%
2. ardatza	GARAPENA (GOZATU)	4 ekintza	% 9,8	265.285 €	8,5%
3. ardatza	ERAGINA (ERALDATU)	8 ekintza	% 19,5	1.467.291 €	47,1
4. ardatza	BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA	22 ekintza	% 53,7	582.164 €	18,7%

Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planeko hamabost esparruetara edo jardun-eremuetara jaitzita, 2026ko urteko plan operatiboa honela zehazten da.

Ardatza	Arloa	Ekintzak		Aurrekontua	
		Kop.	%	Zenbatekoa	%
1. ardatza Emantzipazioa (Bizi)	Enplegua	72	27,2	84.671.862 €	19,4
	Etxebizitza	4	1,5	143.779.297 €	32,9
	Errenta	1	0,4	33.078.300 €	7,6
	Kohesioa	12	4,5	70.306.274 €	16,1
	Erresilientzia	1	0,4	650.000 €	0,1
2. ardatza Garapena (Gozatu)	Osasun Integrala	27	10,2	3.764.180 €	0,9
	Hezkuntza	37	14,0	54.970.721 €	12,6
	Kultura eta Euskara	24	9,1	4.664.074 €	1,1
	Aisia eta denbora libre	2	0,8	226.800 €	0,1
3. ardatza Eragina (Eraldatu)	Partaidetza	9	3,4	3.887.425 €	0,9
	Berdintasuna	17	6,4	1.221.477 €	0,3
	Aniztasuna	2	0,8	28.810.000 €	6,6
	Bizikidetza	12	4,5	1.840.853 €	0,4
	Klima-aldaketa	11	4,2	2.457.360 €	0,6
4. ardatza Behaketa eta Koordinazioa	Ezagutza eta lankidetz	34	12,8	2.434.168	0,6
GUZTIRA		265	100,0	436.999.091 €	100,0



6.

**ERANSKINA: 2026ko JARDUEREN
ZERRENDIA, ARDATZ, ARLO,
HELBURU ETA ESKU-HARTZE
ILDOEN ARABERA**

2026. urteko programazioa - Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Plana

AR DATZA:

EMANTZIPAZIOA (BIZI)

ARLOA: ENPLEGUA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ENPLEGUA				
Helburu estrategikoa: Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan				
Esku-hartze ildoak: Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Lanean hasteko azterketa - LH eta Unibertsitateak	272.000 €	158.121,36 €	Inkestatutako gazteen kopurua	23.950
Esku-hartze ildoak: Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Hezibi programa: Prestakuntza eta txandakako lana 30 urtetik beherako gazte langabeentzat.	3.000.000 €	3.000.000 €	Kontratatutako gazteen kopurua	1.000
Helburu estrategikoa: Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea				
Esku-hartze ildoak: Lehen lan-esperientziak bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Lehen Aukera programa	8.800.000 €	8.800.000 €	Praktikaldiko kontratuen eta kontratu mugagabeen kopurua	970
Basque Global Industry (Industria Globala)	4.960.000 €	4.960.000 €	Emandako beka kopurua	350
Igarotze-bekak; unibertsitatekoak eta lanbide-heziketakoak, hezkuntza-mundurako trantsiziorako.	3.118.000 €	3.118.000 €	Emandako beka kopurua	1.600
Nazioartekotze-bekak BEINT	2.632.500 €	2.632.500 €	Emandako beka kopurua	60
Igarotze- eta ekintzailatza-bekak	2.466.000 €	2.466.000 €	Emandako beka kopurua	1.061
Dirulaguntza izenduna Novia Salcedo Fundazioari, Reactivate Programa, Ekintza Plana eta XII Bilbao Youth Employment Forum (BYEF) 2026 egiteko	800.000 €	800.000 €	Emandako beka kopurua	105
Dirulaguntza izenduna koreografiaren artearen garapena sustatzeko elkarteari (Dantzaz Konpania), bere urteko programa finantzatzeko	82.000 €	82.000 €	Kontratatutako dantzari gazteen urteko kopurua	14
Lankidetz hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta kontsumo Sailaren eta Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Turismo Sailaren artekoa, ikasleen prestakuntza-praktikak egiteko	25.000 €	25.000 €	Bekadun kopurua	100
Besteren konturako kontrataziorako laguntza-lerroa (LEADER)	43.540 €	6.052,06 €	Sortutako enplegu (gazte) kopurua	2
6. Pabeloiko gazte konpainiarentzako laguntza	52.000 €	5.000 €	Kontratatutako aktore gazteen urteko kopurua	25
Esku-hartze ildoak: Esperientzia duten gazteak kontratatze laguntza				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Toki-erakundeetako gazteak kontratatzea	2.619.599 €	2.619.599 €	Kontratatutako gazteen kopurua	92
KonektaLan	183.900 €	183.900 €	Parte-hartzaileen kopurua	750

Esku-hartze ildoak: Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriarri zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Tokiko enplegua garatzeko eta sortzeko proiektuak	7.551.689 €	2.643.091,15 €	Kontratutako gazteen kopurua	276
IKERLAN programa	1.250.000 €	1.250.000 €	Parte-hartzaileen kopurua	44
Txanda-kontratua	1.350.000 €	472.500 €	Guztira egindako txanda-kontratuen kopurua	52
Bikaintek programa: doktorego industrialak egiteko laguntza-lerroa	325.000 €	325.000 €	Kontratazio kopurua	22
Pasaiako, Ondarroako eta Bermeoko Itsas Arrantzako Institutu Politeknikoetan ikasketak egiteko bekak	132.076 €	132.076 €	Beka kopurua	142
Merkataritza-ganberentzako diru-laguntza, "Retaileko Euskal Eskolaren Garapena" proiekturako	570.000 €	79.230 €	Eroritako saltokien kopurua	42
Mondragon Unibertsitateko EnpresagintzaFakultatea, LEINN – Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradutik berrikuntza komertziala bultzatzeko	70.998 €	70.998 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	21
Dirulaguntza izenduna Industrias Creativas fundazioari, EAEko kultura-industriak sustatzeko eta indartzeko. Bime Pro Campus 2026	40.000 €	22.000 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	24
Esku-hartze ildoak: Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriarri zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
2023-2025 laguntza-deialdia, lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko	3.936.603 €	979.895 €	Lagundutako gazte kopurua	4.545
Dirulaguntza izenduna Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitate nagusiei	540.217 €	540.217 €	Lagundutako gazte kopurua	1.450
Esku-hartze ildoak: Enplegarritasuna aktibatzeke eta hobetzeko prestakuntza indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriarri zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Langabeentzako prestakuntza-ekintzak	65.647.250 €	22.976.537,5 €	Prestatutako gazteen kopurua	16.000
Langileentzako prestakuntza-ekintzak	21.600.000 €	3.996.000 €	Prestatutako gazteen kopurua	9.000
Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza	1.203.125 €	1.203.125 €	Programan parte hartu duten pertsonen kopurua	500
Itsasoratu Programa	98.700 €	98.700 €	Parte hartu duten ikasleen kopurua	11
Helburu estrategikoa: Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea				
Esku-hartze ildoak: Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriarri zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Osalanen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzat-hitzarmena, UPV/EHU-Osalan Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedra sortu, garatu eta mantentzeko	40.000 €	40.000 €	Mintegian parte hartu duten pertsonen kopurua	300
UPV/EHUko laneko segurtasun eta osasuneko masterreko diru-laguntza	13.000 €	13.000 €	Osalanen Laneko segurtasun eta osasun uda ikastaroan emandako ordu-kopurua	30
Barne-erizain egoiliarren, barne-mediku egoiliarren eta erizaintzako ikasleen prestakuntza	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Barne-erizain egoiliarren, barne-mediku egoiliarren eta erizaintzako ikasleen kopurua	8

Ikasleek OSALANera egindako bisitak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko	Baliabide propioak	Baliabide propioak	LHko ikasle-kopurua	400
Lehen eta Bigarren Hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko plana	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Webguneko sarrera-kopurua	2.000
Udako ikastaroa laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, Osalanek unibertsitatean antolatzen duena	Baliabide propioak	Baliabide propioak	Udako Unibertsitateko laneko segurtasun eta osasunari buruzko Osalanen ikastaroko ikasle-kopurua	100
Esku-hartze ildoak: Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
ADI Proiektua	20.000 €	20.000 €	ADI proiektuan trebatutako LHko ikasleak eta ikasle-kopurua, guztira	1.200
Helburu estrategikoa: Gazte ekintzaileen kopurua handitzea				
Esku-hartze ildoak: Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Ekintzailetzarako laguntzak	3.650.000 €	1.277.500 €	Gazte onuradunen kopurua	326
Ekintzailetza-bekak	700.000 €	700.000 €	Emandako beken kopurua	150
Euskadiko Gazte Orkestrarentzako diru-laguntza	335.000 €	335.000 €	Programaren bidez prestatutako gazteak	70
Gidoi zinematografikoak sortzeko laguntzak	156.000 €	39.000 €	Gidoiak idatzi dituzten gazteei emandako laguntzen kopurua	3
Ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako laguntza-lerroa(LEADER)	174.155 €	24.207,55 €	Lagundutako gazteen proiektu kopurua	12
Gazteentzako literatura sortzeko laguntzak	54.000 €	18.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	2
Ipuin edo eleberri laburrak sortzeko laguntzak	40.000 €	16.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	2
NOKA Mentoring Programa	50.000 €	15.000 €	Urtean zehar parte hartu duten gazteen kopurua	1
Album ilustratuak sortzeko laguntzak	45.000 €	15.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	1
Komikiak eta eleberri grafikoak sortzeko laguntzak	60.000 €	15.000 €	30 urtetik beherakoei esleitutako laguntzen kopurua	1
Musika konposatzeko laguntzak	82.000 €	14.000 €	Konpositore gazteei emandako laguntzen kopurua	2
Antzerkirako testuak sortzeko laguntzak	108.000 €	13.000 €		
Sorkuntza koreografikorako laguntzak (Dantzan Bilaka)	87.000 €	12.000 €	Koreografo gazteei emandako laguntzen kopurua	7
Esku-hartze ildoak: Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriar zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Ekintzailetza, berrikuntza eta hiri-ekonomia aktibatzeak ekintzak sustatzeko eta laguntzeko programa.	938.583 €	130.463,04 €	Eskari kopurua	21
-	100.000 €	100.000 €	Programari atxikitako zentroen kopurua	20
Gaztenpresa, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua enpresa-ekimenetan	240.000 €	84.000 €	Sortutako enpresa kopurua	78

Gizarte-ekonomia garatzeko eta zabaltzeko ikastaroak gazteentzat	Zehazteko dago		Gizarte-ekonomiaren arloko enpresetako langile gazteen, unibertsitate-ikasleen eta DBHko ikasleen kopurua	800
Esku-hartze ildoak: Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailatza sustatzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiteko laguntza-neurria	1.043.044 €	144.983,12 €	Lagundutako gazteen proiektu kopurua	3
-	785.000 €	141.300 €	Parte-hartzaileen kopurua	200
Enplegurako prestakuntza (nekazaritza- eta itsas- eta arrantza-eremua)	700.000 €	97.300 €	Parte-hartzaileen kopurua	3.000
ONEKIN_Pertsona ekintzaileei laguntza integrala emateko sistema: Gazteenek 2027 eta Geroa programak	700.000 €	97.300 €	Ekintzaileen kopurua	100
Praktikak	140.000 €	19.460 €	Parte-hartzaileen kopurua	15
Kultura ekintzailea	50.000 €	6.950 €	Parte-hartzaileen kopurua	150
Egonaldi laburrak	35.000 €	4.865 €	Parte-hartzaileen kopurua	5
Helburu estrategikoa: Baztertuta garatzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea				
Esku-hartze ildoak: Langabezia eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Dirulaguntza izenduna Tendel elkarteari, Bilboko Otxarkoaga auzoan Diversi-Otxar etorkizuneko enplegarritasuna hobetzeko gizarte- eta hezkuntza-programa abian jartzeko	60.000 €	37.000 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Diru-laguntza izenduna SENDOTU ALDIBEREAN Fundazioari, pertsona modu integralean gara dezaten dimentsio pertsonalean, familiarrean, sozialean eta laborean, arreta berezia jarri emakumei, haien erreferentzia-esparru psikologikoa, soziala eta fisikoa indartuz.	150.000 €	20.850 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua	550
Esku-hartze ildoak: Orientazioa eta laguntza espezifikoak indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Familian laguntzeko sarrerik ez duten gazteak gizarteratzeko eta helduarora igarotzeko ibilbide pertsonalizatuak eta integralak prestatzea eta egitea	5.000.000 €	5.000.000 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua (18-23 urte)	330
Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak, lehentasunezko arretako kolektiboak zuzenduak	4.126.119 €	865.899 €	Gazte onuradunen kopurua	38
Zuzeneko dirulaguntza Enpleando.nos eta Batzen proiektuetako gizarteratzeko eta laneratze ibilbide mistoak garatzeko.	891.262 €	369.803 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Ikaskuntza-bitartekarien sarea	750.000 €	104.250 €	Ikaskuntza-bitartekotzako zerbitzuetan artatutako pertsonen kopurua	6.000
Helburu estrategikoa: Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea				
Esku-hartze ildoak: Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa

Enplegu-zentro bereziak	76.315.400 €	5.447.779,17 €	Parte-hartzaile gazteen kopurua	778
Laneratzeko enpresak	16.453.458 €	1.370.200 €	Gazte onuradunen kopurua	149
Enplegu lagundua	1.400.000 €	720.020 €	Laguntza jaso duten gazteen kopurua	41
Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntean kontratu mugagabeak egiteko dirulaguntza	750.000 €	262.500 €	Kontrataturako gazteen kopurua	45
Esku-hartze ildoak: Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea				
Ekintzen izena	Programaturako aurrekontua 2026	Programaturako aurrekontua Gazteriarri zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen 1. lerroa (N Lerroa)	23.500.000 €	3.266.500 €	Onuradunen kopurua	2.190
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen 2. lerroa (D Lerroa)	1.200.000 €	166.800 €	Onuradunen kopurua	90
Familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntzen 3. lerroa (Z lerroa)	10.000 €	1.390 €	Onuradunen kopurua	7

ARLOA: ETXEBIZITZA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ETXEBIZITZA				
Helburu estrategikoa: Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea				
Esku-hartze ildoak: Etxebizitza babestuaren lehentasunezko erreserba ezartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gazteek etxebizitza eskura dezaten bultzatzea, etxebizitza berriak, zuzkidura-bizitokiak edo bitartekaritza-programak sustatuz	207.003.306 €	103.501.653 €	ASAP eta Bizigune bitartekaritza-programen bidez etxebizitza bat eskuratu duten gazteen kopurua	50
Esku-hartze ildoak: Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
Gaztelagun programa, alokairua ordaintzen laguntzeko.	30.800.000 €	30.800.000 €	GAZTELAGUN programaren onuradun diren gazteen kopurua	9.500
Etxebizitzarako eskubide subjektiboari lotutako etxebizitzarako prestazio ekonomikoa	67.000.000 €	9.313.000 €	EPE-a jaso duten gazteen kopurua	Ez dago daturik
Lehen etxebizitza erosten laguntzeko abalen gastuak	164.644 €	164.644 €	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100

ARLOA: ERRENTA

ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)				
ARLOA: ERRENTA				
Helburu estrategikoa: Errenta erabilgarria hobetzea				
Esku-hartze ildoak: Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea				
Ekintzaren izena	Programatutako aurrekontua 2026	Programatutako aurrekontua Gazteriari zuzenduta 2026	Munta adierazlea	Xede-balioa
